


# XI. IDAZLAN KOADERNOA LEHEN HEZKUNTZA-2012



XI.

IK.





# XI. IDAZLAN KOADERNOA

**Ipuin zoragarriak**



**Lehen Hezkuntza**

**G E R N I K A - L U M O**

2012 urtea

Argitaratzailea:

- **Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila.**

Laguntzaileak:

- **Allende Salazar Ikastetxea.**
- **Barrutia Eskualde Ikastetxea.**
- **Mertzedo Ikastetxea.**
- **San Fidel Ikastola.**
- **Seber Altube Ikastola.**

Portadaren egilea:

- **Kerman de la Fuente** (LH 6. mailako ikaslea)

Babesleak:

- **Eusko Jurlaritzako Kultura Saila** (HPS)
- **Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila** (Euskara Zuzendaritza)

Diseinua eta maketazioa:

- **Nekane Akarregi / 11barri**

Inprimaketa:

- **Lizaso Grafikak / Zornotza**

**2012ko edizioa.**



**P**ertsonok ditugun abileziak zer edo zerekin alderatu dituzue inoiz? Ariketa halakoa izango litzateke, gutxi gorabehera: *“Dugun abesteko gaitasuna txoriek dutenen...”* parekoa al da? Haiek txio-txio zoragarriak egiten dituzte, baina gure ahotsez egin ditzakegunekin alderagarriak direnik... ez dakit nik neuk.

Eta zer esango genuke ia edozein objektorekin musika sortu eta, ehunka urte pasa eta gero, berriz interpretatu ahal izateko kodea asmatu izanari buruz? Dauden abesti zenbatezinen artean, gainera, bi ez dira berdinak —etengabe sortzeko ahalmena dugu-eta—. Zoragarria da!

Alderatu nahian parekorik aurkitu gabe geldituko ginatekeen ondareetako beste bat: hizkuntzak. Ba ote dakigu behar bestean baloratzen pentsamendua bideratzeko, arrazoitzeko, sortzeko... ditugun kodeak? Ez al da lilugarria munduan ia zazpi mila hizkuntza ezberdin existitzea? Badakizue horien guztien artean, izan ere, euskara erabilienetakoa dela? Lehen berrogeien artean omen dago. Hunkigarria gure hizkuntza.

Eskuartearen dituzuen irakurgaiak herriko haur eta gazteen sormenaren, ahaleginaren eta pozaren isla paregabeak dira; horregatik eta, baita ere, idazleek ideiak xixelatzeko erabili duten tresnak — euskarak berak — balio neurtezina duelako, altxor prezia- tuak ditugu.

Eskerrik asko beste behin ere literatura lehiaketa honetan aritu zareten ikasle eta irakasle guztioi. Ekin iezaiozue beti kemenez, gal ez dadin. Eta zorionak, ezinbestean, zuon idazlanak argitaratuta ikus ditzakezuenoi. Jarrai dezazuela idaztean poza aurkitzen!

Hitzaurrea irakurtzeari ez badiozue laga dagoeneko, seguruenik irakurketan murgiltzeko irrikaz izango zarete.

**Besterik barik, bada, goza dezazuela!**

Iñaki Gorroño Etxebarrieta  
Hezkuntza zinegotzia

Esperanza Uriarte Erdaide  
Euskara zinegotzia



## LHkoen IRAKURKETA EKITALDIA

2012ko APIRILaren 19an,  
LIZEO ANTZOKIAN (11:00etan)

## IZENA

## MAILA

## IPUINA

Maialen Cid Ibarguengoiti	L.H. 1.	"Neska futbolaria"	5
Oihane Zabala	L.H. 1.	"Jauregi magikoa"	7

Iker Torriko	L.H. 2.	"Lehoia eta sugea"	9
Juan Jose Lezcano Ozuna	L.H. 2.	"Arrain Erraldoia"	1
Peru Arteagabeitia Agirregoitia	L.H. 2.	"Jon eta bere aita Afrikan"	1
Iraia Aranbarri	L.H. 2.	"Animalitxoak"	1
Ekain Barandika Gomez	L.H. 2.	"Alkandora magikoa"	1
Ander Ansotegi	L.H. 2.	"Popoto hartzaren abentura"	1
Mirari Martin Dominguez	L.H. 2.	"Zuriren arazoa"	1
Josu Foruria Lasa	L.H. 2.	"Altxorra eta neska-mutilak"	1

Izaro Ezkurdia Beaskoetxea	L.H. 3.	"Ilargia eta Sagua"	1
Paula Fulgencio Almeida	L.H. 3.	"Enara eta bere txakur kumeak"	1
Carla Rae Piercey	L.H. 3.	"Xabilo Barraskilo"	1
Itsaso Olea Urionabarrenetxea	L.H. 3.	"Lagun minak"	1

Mikel Alday	L.H. 4.	"Basoan galduta"	1
Xabier Malaxetxebarria, Julen Omaetxebarria eta Markel Rodriguez	L.H. 4.	"Basoan galduta"	1
Danel Unamuno Gonzalez	L.H. 4.	"Gorkaren Ametsa"	1
Irati Unzueta Cuende	L.H. 4.	"Ni desberdina naiz"	1
Andere Uriarte Alegria	L.H. 4.	"Jone eta etxe zaharra"	1
Alaia Ituño Martin	L.H. 4.	"Igor munstrokumea"	1

Aitor Lafuente Lezertua	L.H. 5.	"Otarreko azeria"	1
Mikel Gabiola Foruria Barrutia	L.H. 5.	"Iker eta Ander, bere robota"	1
Ibai Arriaga Sainz-Maza	L.H. 5.	"Bi ume espazioan"	1
Paula Aldana Aldekoa	L.H. 5.	"Koloregabeko ostadarra"	1

Julen Armaolea	L.H. 6.	"Misterioa ikastolan"	1
Eñaut Totorikaguena Murgialdai	L.H. 6.	"Formula 1eko izarra"	1
Maidar Bengoetxea Regatos	L.H. 6.	"Osagai bila"	1
Eneko Bernedo Azula	L.H. 6.	"Pitufilas eta Eneko"	1
Paul Aberasturi Akaiturri	L.H. 6.	"Aitonaren magia"	1
Jane Garcia Beaskoetxea	L.H. 6.	"Ipuin batean zehar altxorraren bila"	1



Maialen Cid Ibarquengoitia

«Futbola eta igeriketa ditut gustuko»


## «Neska futbolaria»

### NESKA FUTBOLARIA

Behin batean herri txiki batean,  
Ane izeneko neskatxo bat bizi  
zen. Horregatik mutilen futbol  
taldean apuntatu nahi zen.  
Izena ematera joan zenean,  
taldeko arduradunak nekak  
ezin direla apuntatu esan zion.  
Ane etxera oso triste itzuli zen.  
Zenbat negar egin zuen Anek!  
Baina egun batean ideia bat  
bururatu zitzaion, mutil  
mozoratu eta partidua jolastera  
joan zen.  
Partiduan bost gol sartu zituen.  
Mutilak, neska zela konturatu

zirenean, parkamena eskatu  
zioten eta handik aurrera  
neskak eta mutilak futbolera  
elkarrekin jolasten ziren.  
Egia ala gezurra, begi bien  
artean sudurra.

Maialen Cid  
Ibarguengoitia







Oihane Zabala Barrutia

«Gehien gustatzen zaidana: lagunekin egotea,  
igeri egitea eta nire ahizparekin jolastea»

«**Jauregi magikoa**»

## Jauregi Magikoa

Bazen behin jauregi magiko bat.

Jauregi horretan printzesa on bat

bizi zen, bere izena Rakel zen.

Printzesa animalien laguna zen.

Eta oso maja zenez oso ondo portatzen

zen guztiekin.

Animalia batek esan zion:

-Printzesa, printzesa, banbi kume bat  
jaio da.

Printzesa korrika joan zen kumea ikusteko  
irrikatzen. Banbi kumea basoan zegoen eta  
eskuetan hartu eta jauregia eramane zuen.

Azkenik, banbi kumea  
printzesarekin bizi  
izateko betirako.

